

## XEDAPEN OROKORRAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

### 161

*HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena: Agindua, 2020ko azaroaren 30ekoa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura aritzeko aldi baterako langile-beharrak estaltzeko hautagaien zerrenden kudeaketaren gaineko arautegia.*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.a) artikulua ezartzen duenez, argitalpenean sortzen diren osaera-akatsak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu ofizioz, edo organo edo erakunde interesdunak eskatuta, baldin eta akatsen edukia aldatzen badute edo zalantzak sor baditzake.

Horrelako akatsak aurkitu dira, gaztelaniazko argitalpenean, honako agindu honetan: «Agindua, 2020ko azaroaren 30ekoa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura aritzeko aldi baterako langile-beharrak estaltzeko hautagaien zerrenden kudeaketaren gaineko arautegia.», zeina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu baita 2020ko abenduaren 14an, 249 zenbakian. Hori dela-eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen.

2020/5320 (19/20) orrialdean,

hau esaten den lekuan:

«DISPOSICIÓN FINAL SEGUNDA.– Comunicación de la oferta de trabajo.»

honela esan behar du:

«DISPOSICIÓN TRANSITORIA SEGUNDA.– Comunicación de la oferta de trabajo.»

2020/5320 (19/20) orrialdean ere,

hau esaten den lekuan:

«DISPOSICIÓN FINAL TERCERA.– Formación.»

honela esan behar du:

«DISPOSICIÓN TRANSITORIA TERCERA.– Formación.»